

1.- Eskatutako mailaren helburu orokorra

Gai izatea aurreikus daitezkeen hainbat egoeratan modu mugatu baina egoki batean, eta ezohikoa den informazioa modu orokorrean jorratzeko.

2.- Eskatutako gaitasunak

Entzumenean, gai izatea...

- Irratiko edo bestelako grabazio pausatu eta argien puntu nagusiak ulertzeko gai ezagunetan
- Telebista-programen haria jarraitzeko, hizkera nahiko geldia eta argia denean.
- Eguneroko arazoekin zerikusia duten grabazio laburren informazio nagusia ulertzeko, astiro eta argi hitz egiten denean.

Irakurmenean, gai izatea...

- Egunkariko artikulu laburren puntu nagusiak ulertzeko, gaiak arruntak edo ezagunak direnean.
- Elkarrizketak irakurtzeko, eta testuaren esanahi orokorraz jabetzeko.
- Testu laburrak gainbegiratzeko (adib. Albiste laburrak) eta informazio nagusia aurkitzeko
- Eguneroko esku-paperetan agertzen den informazio nagusia ulertzeko.

Idazmenean gai izatea...

- Jasotako heziketari, lanari, interesei edota trebetasunari buruzko galdera-sorta bati erantzuteko.
- Gutun batean norbere burua aurkezteko.
- Gertaera bat orden kronologikoan adierazteko lokailu nagusiak erabiliz.
- Gustuko arloetan testu sinple eta koherenteak idazteko, baita iritziak emateko ere.
- Iragarki bati idatziz erantzuteko edota produktu bati buruzko informazio zehatzagoa eskatzeko.

Elkarrizketetan gai izatea...

- Aurrez aurreko elkarrizketa sinpleak hasi, mantendu eta amaitzeko, gaia ezaguna edo interes pertsonalekoa denean.
- Sentimenduak adierazteko ikasitako esapideak erabiltzeko, hala nola harridura, poza, tristura, jakin-mina edo ezaxola.
- Ikuspuntu eta iritziak azaltzeko
- Adostasuna edo desadostasuna adierazteko.

Ahozko adierazpenetan gai izatea...

- Istorio hurbilak edo interesekoak kontatzeko.
- Ametsak, itxaropenak eta helburuak azaltzeko.
- Planak, asmoak eta ekintzak azaltzeko eta horien zergatiak emateko.
- Liburuen edo filmen argumentuak kontatzeko eta inpresioak deskribatzeko.

Hizkuntza-kalitate eta baliabideetan gai izatea...

- Elkarrizketan eta eguneroko hainbat gaitan era ulergarrian hitz egiteko, beharrezkoa bada zuzenketak eta pentsatzeko etenak eginez.
- Informazio sinplea emateko, puntu nagusiak nabarmenduz.

3.- Probaren egitura eta puntuazioa

Atalak (puntuak)		Neurtzekoa	Galdera tipoa / (puntuak)100	Gutxienezko puntuazioa	Denbora 2:25 eta 12'
Irakurmena (20)	A	Ulermen orokorra	Bai / ez Aukera anitzekoa (4puntu)		15
	B	Ulermen zehatza	Bai / ez Aukera anitzekoa (8 puntu)		15
	C	Ulermen estrategiak	Bai / ez Aukera anitzekoa (8 puntu)		15
Idazmena (20)	D	Bideratua	(10 puntu)	15 puntu	10
	E	Librea	(20 puntu)		50
Entzumena (20)	F	Ulermen orokorra	Bai / ez Aukera anitzekoa (10 puntu)		15
	G	Ulermen zehatza, ulermen estrategiak	Bai / ez Aukera anitzekoa (10 puntu)		15
Mintzamena (30)	J	Interazioa	(5 puntu)	15 puntu	3
	K	Zuzentasuna, komunikagarritasuna	(20 puntu)		5
	L	Estrategiak	(5 puntu)		3

Puntuazioa:

Osotara: 100 puntu

gutxienezko puntuazioa : 65 puntu

4.- Atal bakoitzaren deskripzio zehatza:

Irakurmena

Entzumena

Entzumena neurtzeko bi probetan bizpahiru testu egon ahal dira , ulermen orokorra, ulermen zehatza eta ulermen estrategiak neurtzeko. Bi aldiz entzungo dituzte [testuak](#). Osotara 20 puntu balio ditu.

F.- Proba honetan ulermen orokorra neurtuko dugu. Normalean, azalpenezko [testua](#), narrazioa edo elkarrizketa erabiliko dugu, bertan [testua](#)ren ideia nagusia, hizlariaren asmoa, nahitaezko datu garrantzitsua ulertu beharko ditu ikasleak. Zenbait galdera egingo ditugu: bai / ez, E/G, aukera anitzekoak edo galdera irekiak nahastu gabe, beti ere.

G.- Ulermen zehatza eta ulermen estrategiak neurtuko ditugu proba honetan. Azalpenezko testua, narrazioa edo elkarrizketa izango da; beti ahots ezberdinak eta ongi bereizten direnak izango dituzte. Galderak bai / ez, E/G, aukera anitzekoak edo galdera zehatzak izango dira, nahastu gabe. Eguneroko gaiak azalduko dira: agurrak, erosketak, informazio eskaerak, proposamenak...

Mintzamena

Bi proba egingo ditu ikasleak; biak batera hamar bat minututan. Interazioa, zuzentasuna eta komunikagarritasuna, eta mintzatzeko estrategiak baloratuko ditugu. Osotara 30 puntu balio du.

Ikasleak binaka sartuko dira (bikote bakoitza 20 bat minutu egongo da proba egiten)

J.- Mahaiburukoek galdera batzuk egingo dizkiete ikasleei: nor diren, nongoak, non ikasi duten.... Jariotasuna eta egokitasuna baloratuko dira.

K.- Ikasleek narrazioa edo deskripzioa egingo dute gai, testu, argazki edo marrazki baten gainean, eta nahi izanez gero emandako baieztapen edota iritziz balia daitezke; horretarako 10 minutu izango dituzte prestatzeko. Bakarkako azalpena egin ondoren ikasleek elkarri egingo dizkiote galderak gaiei buruz eta testu horien inguruan iritzia emango dute. Batez ere, zuzentasuna eta komunikagarritasuna baloratuko ditugu; baita [testuaren](#) antolaketa argia.

Puntuak

Zuzentzeko irizpideak, hau da, zer baloratu eta zer ez, zein puntutarainoko garrantzia duten akatsek, eta abar, atal bakoitzean zehaztu ditugu aurretik. Hemen bakarrik zenbat puntu banatu eta zenbat behar diren zehaztuko ditugu.

Proba honek osotara 100 puntu banatzen ditu; ziurtagiria lortzeko gutxieneko puntuak 65 izango dira; dena den, zenbait ataletan gutxieneko puntuak lortu behar ditu ikasleak proba osoa gainditu nahi badu (Idazmenean eta mintzamenean gutxieneko puntuazioa eskatzen da; irakurmenean eta entzumenean puntuazioa konpentsatu ahal da, beti ere, 24 puntu lortu behar dira proba gainditzeko).

5.- Zuzentzeko irizpideak:

Idatzizkoa:

Kontuan hartuko direnak:

Eginkizuna betetzea eta eskatzen dena egitea.

Ulergarritasuna: koherentzia minimoa. Nahiko erraz ulertzen dena.

Aberastasuna: perpausen lantze-maila, lexiko egokia,

Zuzentasuna: aspektu egokia, puntuazioa, pluralgileak, konmuztadura, ergatiboa, zehar galdera, konpletiboa...

Ahozkoa:

Lau izanen dira kontuan hartuko ditugun aspektuak:

Ulergarritasuna. Garrantzi handien duena da. Nahitaezko baldintza da lehenengo mailako eskakizunetan.

Abiadura. Pentsatzeko tarteren bat hartu behar izanez gero ere, ulergarritasuna oztopatzen ez duena eskatuko da.

Aberastasuna. Hau baloratuko dugu: Sobera hizkera erraza ez erabiltzea eta egitura ezberdinen erabilera (kontzesiboak, erlatibozkoak, menpekoak...)

Zuzentasuna : Deklinabidea, aditza, erlatibozko esaldiak, zehar galdera, nominalizazioa, komuztadura...